



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailak 1

Vitoria-Gasteiz, 1 de febrero de 2022

Segurtasuna

GOBERNU KONTSEILUAK EAEKO LARRIALDI AERONAUTIKOEN PLAN BEREZIA ONARTU DU, ESTATU OSOKO EZAUGARRI HORIETAKO LEHENENGO PLAN HOMOLOGATUA

- Planak aireko larrialdi desberdinen kudeaketa osoari heltzen dio, eta erakundeen, organismoen eta zerbitzuen arteko koordinazioa antolatzen du eta era horretako gertaerei lotutako arriskuak aztertzen ditu
- Aldi berean, herritarrei arreta emateko neurriak ere jasotzen ditu, eragindako pertsonen eta horien familiei zuzendutako aldagai psikosoziala, “*harremanetarako pertsona*” irudiaren bidez, barne hartuta

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio *Euskal Autonomia Erkidegoko Larrialdi Aeronautikoen Plan Bereziari*. Babes Zibileko Kontseilu Nazionalak Estatuan homologatutako ezaugarri horietako lehenengo plana da. Plan hori “*Euskadiko Babes Zibileko Planean*” (LABI) integratuta dago, eta helburu nagusia du eskumenak dituzten administrazioek koordinatuta eta goitik behera kudeatzea *Planean* bertan deskribatutako larrialdi aeronautiko desberdinak. Gainera, Planak halako zerbait gertatzeko probabilitate handiena duten eremuak identifikatzen ditu, babes-neurriak egokienak hartzeko eta “*harremanetarako pertsona*” irudia barne hartzen duen arreta psikosozialerako programaren bidez biktimei eta familiarteko arreta emateko.

Planean honako kasuak jaso dira: airean doazen aireontzietako pilotuek deklaratu duten eta oraindik gertatu ez den istripua eragin dezakeen larrialdia; instalazio aeronautikoetan (aireportuak, aerodromoak eta heliportuak) gertatutako larrialdiak, aireontzien istripuek eragindakoak izan ala ez; autonomia-erkidegoko lurraldeko edozein lekutan gertatzen diren abiazio zibileko larrialdi aeronautikoak; eta autonomia-erkidegotik kanpora gertatutako larrialdiak, hegaldiaren jatorria, eskala edo helmuga Euskadiko aireportuetako bat bada.

Esku hartzeko aurreikusten diren ekintza-taldeen gainera (esku hartzeko taldea, segurtasuneko taldea, osasun-zerbitzuen taldea, talde logistikoa, laguntza teknikoaren taldea), Planak aurreikusten du “*Arreta Psikosozialerako Programa*” aktibatzea, eta horren barruan “*harremanetarako pertsona*” izeneko irudia oinarritzko elementua izango da bai abiazio zibileko istripuen biktimei eta horien familiartekoei laguntza emateko bai inplikaturako organismo guztiekin gai honetan koordinatuta jarduteko.

Plan hau abian jartzean Eusko Jaurlaritzak Euskadin segurtasun aeronautikoaren arloan dagoen araudia betetzen du. Egia bada ere gure autonomia-erkidegoan mugatuak direla era horretako arriskuak, segurtasun-sistemek izugarri murriztu baitute halako gertaerak izateko aukera, oraindik ere

oroimen kolektiboak gogoan ditu gure inguruan halako hondamendi bat eragin zuten istripuak.

Seguridad

EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA EL PLAN ESPECIAL DE EMERGENCIAS AERONÁUTICAS DE LA CAE, PRIMERO DE ESTAS CARACTERÍSTICAS HOMOLOGADO EN EL CONJUNTO DEL ESTADO

- El Plan aborda de forma integral la gestión de los diversos supuestos de emergencia aérea articulando la coordinación entre instituciones, organismos y servicios e identifica y analiza los riesgos asociados a este tipo de incidentes
- Al mismo tiempo recoge las medidas de atención a la población entre las que se incluye la variable psicosocial dirigida a las personas afectadas y sus familias a través de la figura “*Persona de Contacto*”

El Consejo de Gobierno ha dado el visto bueno al *Plan Especial de Emergencias Aeronáuticas de Euskadi*, primero de estas características homologado en el conjunto del Estado por el Consejo Nacional de Protección Civil. Dicho Plan está integrado en el “*Plan de Protección Civil de Euskadi*” (LABI), cuyo principal objetivo es que las distintas administraciones competentes gestionen, de forma coordinada e integral, los diferentes supuestos de emergencia aeronáutica descritos en el propio Plan. El Plan identifica, además, las zonas donde existe mayor probabilidad de ocurrencia, adoptando las medidas de protección más adecuadas y prestando atención a las víctimas y familiares mediante el programa de atención psicosocial en el que destaca la figura “*Persona de Contacto*”.

El *Plan* recoge los siguientes supuestos: emergencia declarada por pilotos de aeronaves en vuelo que puedan derivar en accidente aún no producido, emergencias ocurridas en instalaciones aeronáuticas (aeropuertos, aeródromos y helipuertos), sean o no producidas por accidentes de aeronaves, emergencias aeronáuticas de la aviación civil que se produzcan en cualquier punto del territorio de la comunidad autónoma y emergencias que, aun sucediendo fuera de la misma, se deriven de un vuelo con origen, escala o destino en cualquiera de los aeropuertos de Euskadi.

Además del concurso de los diferentes grupos de acción previstos (Grupo de Intervención, Grupo de Seguridad, Grupo Sanitario, Grupo Logístico y Grupo de Apoyo Técnico), el Plan prevé la activación del “*Programa de Atención Psicosocial*”, dentro del cual figura la denominada “*Persona de Contacto*” como elemento clave en la prestación asistencial a las víctimas de accidentes de aviación civil y a sus familiares, así como en la coordinación, en esta materia, con todos los organismos implicados.

Con la puesta en marcha de este *Plan*, el Gobierno Vasco da cumplimiento a la normativa existente en materia de seguridad aeronáutica en Euskadi. Si bien en nuestra comunidad este tipo de riesgos son limitados, ya que los sistemas de seguridad han reducido enormemente la posibilidad de que se produzcan,

aún persisten en el recuerdo colectivo aquellos accidentes en los que la catástrofe estuvo presente en nuestro entorno.